

# Inarra txarragaz, baztarrak lohi: internazionalizatu gabeko produktu informatikoak lokalizatzearen arazoak

**Itziar Bernaola, Ana Isabel Morales eta Iruñe Payros**  
**Itzultzaile-interpreteak, Euskal Herriko Unibertsitatea**

Artikulu honek aztertzen du zer-nolako arazo larriak aurkitzen dituen itzultzaile-lokalizatzaileak itzuli-lokalizatu behar duenean behar bezala internazionalizatu gabeko informatika produktu bat. Internazionalizazio eta lokalizazio kontzeptu giltzarrizkoak behin definiturik, gainbegiratu ematen zaie aipatutako arazoei, benetako adibidez hornitutako azalpenekin. Hiru iturri nagusi proposatzen dira arazo horietarako: (1) hizkuntza jakin baten arabera egindako diseinu zurruna, kontuan hartzen ez duena hizkuntzek egitura desberdinak dauzkatela, eta, gainera, ukatu egiten diona itzultzaileari bere lanerako ezinbesteko duen testuingurua; (2) jatorrizko hizkuntzaren kalitate eskasa, eta haren ondorioak: testu ilunak, inkoherentzia terminologiko eta fraseologikoa, beharrik gabeko polisemia eta sinonimia etab.; eta (3) interfazearen diseinu desegoki eta zurruna, itzultzaileari uzten ez diona interfazeko osagaiak egokitzen xede hizkuntzaren premia konkretuetara.

This paper explores some of the problems translator-localizers face when trying to translate-localize software that has not been properly internationalized. After defining the key concepts of internationalization and localization, the paper goes on to discuss, with the aid of real examples, the main causes for those problems: (1) a rigid software design that does not account for the different structures of the languages involved in the localization process, and deprives translators from the contextual information essential to their work; (2) the poor quality of the source language, resulting in obscure texts, terminological and phraseological incoherence, unnecessary polysemia and synonymia etc.; and (3) an inadequate interface design, whose inflexibility does not allow the translator-localizer to adapt the interface elements to the particular needs of the target language.

## 1. egoera: elkarrizketa zapoetsua

A: Mesedez, itzuli zerrenda hau: hilabeteen izenak dira.

B: Hilabeteen izenak? Zein testutan agertzeko dira?

A: Ez, inongo testutan ez. Datu base batean sartzeko dira.

Zuk itzuli, geuk egingo dugu gainerakoa.

B: Tira: enero: urtarrila, febreero: otsaila...

A: Eta astegunen izenak ere bai. Badakizu: lunes, martes...

## 2. egoera: Interneteko web orrian agertutako lorea

Asteartea, 15 de ekaina

### Sarrera

Itzultzaileak eskuartean daukan materiala testu arrunta izan beharrean aplikazio informatikoa edo softwarea denean, ez du itzulpena egin behar, ezpada lokalizazio lana. Jakina, itzuli beharko ditu, bai, zenbait testu kate, baina lokalizazioa egitea testu horiek itzultzea baino askoz gehiago da: produktu informatiko hori tokian tokiko hizkuntzaren eta kulturaren ezaugarri eta premietara egokitzea, alegia.

Hala ere, itzultzaileak<sup>1</sup> bere lana txukun egin dezan, hau da, lokalizazioa zuzen egin dezan, ezinbestekoa da aurretik produktuaren diseinatzaileek —hots, informatikariek— itzultzaileak gero egin beharko duen lan hori kontuan hartzea diseinu fasean, eta, horretarako, produktuaren internazionalizazioa egoki egitea.

Egia esateko, internazionalizazioa eta lokalizazioa terminoak softwarearen arloan sortu baziren ere, kontzeptuok edozein arlotako objektuei aplika dakizkieke. Baina, aurrera baino lehen, ikus dezagun zehatzago, eta adibideekin, zertan dautzan prozesu bi hauek<sup>2</sup>.

### 1. Internazionalizazioa (I18N)

Tokian tokiko egituretara erraz egokitzeko moduko produktu “neutroa” diseinatu eta fabrikatzea da (egokitzapenetako bat hizkuntzarena da, baina askoren arteko bat besterik ez). Produktua kultura edo hizkuntza bat baino gehiagotarako baliagarria izango bada, beraz, diseinua egitean diseinatzaileak ezin izango du produktua toki bateko ezaugarriari lotu. Kasurako, ezin izango du inolaz ere hizkuntza jakin baten egituraren menpe diseinatu: produktuaren konfigurazioa generikoa izan beharko da, hizkuntza orotatik independentea. Ondo internazionalizatutako produktuak oinarrizko konfigurazio bat baino ez du izango, beste hizkuntza eta kultura batzuen egituretara erraz egokitzekoa.

---

1. Halakoetan “itzultzaile-lokalizatzailea” esan beharko genuke. Hala ere, artikuluan barrena “itzultzaile” terminoa erabili dugu, laburtu beharrez.

2. Termino hauek ingeleseko *internationalization* eta *localization* direlakoetatik sortu dira. Berez, “nazioarteko” bihurtu (*international*) eta “lekuan lekuko” bihurtu (*local*) adierazi gura dute. Askotan terminoak laburdura bidez ematen dira, lehen eta azken hizkia emanik eta tartean bigarren hizkitik azkenaurrekora dagoen hizki kopurua zenbakiz adieraziz: I18N eta L10N.

Hizkuntzarena baino ikuspegi zabalagoa emateko, Ulrich Henes-ek automobilen fabrikaziorako proposatzen duen adibidea ekar dezakegu (Henes 2002): ibilgailu bat diseinatzean, produktuaren oinarri-oinarrizko ezaugarriak baino ez dira definituko, hau da, salgai jarriko den toki guzti-guztiek dituzten ezaugarri komunak besterik ez. Bestela esanda, ibilgailua Alemanian diseinatu arren Britainia Handian ere saldu nahi badute, kontuan izan beharko dute bolantea eta gainontzeko tresneria eskuman jartzeko aukera ere izan beharko duela; ezin izango dute Alemaniako ezaugarriak soilik kontuan hartuta egitura zurruna diseinatu.

Internazionalizazioaren oinarria, beraz, hasiera-hasieratik balizko bezero guztien premiak kontuan hartzea da. Diseinatutako produktua zurruna bada, toki bateko premien arabera sortua, nekeza izango da, eta batzuetan ezinezkoa, produktu hori beste ezaugarri batzuetara egokitzea. Ondorioz, produktua merkatu batzuetatik kanpo geratuko da, edo, onenean, aparteko gastuak egin beharko dira objektu zurrun horri egokitzapenak egin ahal izateko. Hortaz, produkzioa luzatu eta garestitu egingo da.

## 2. Lokalizazioa (L10N)

Produktua tokian tokiko ezaugarrietara egokitzea da, kultura edo hizkuntza bakoitzeko bezeroei arrotzak eta deserosoak egingo ez zaizkien produktuak eskaintzeko, euren kulturen edo hizkuntzan sortuak balira bezalakoxeak. Henes-en adibideari helduta (Henes 2002), Britainia Handian salduko den autoari bolantea eskuman jartzea litzateke, edo kasuan kasuko herrialdean CO<sub>2</sub>-aren emisioaz indarrean dagoen legeriaren araberrako ibilgailua egitea, besteak beste.

Informatika produktuen ikuspegitik adierazita, lokalizazioak, besteak beste, hau eskatzen du: karaktere kateen itzulpena, dataren formatua egokitzea, testu-kutxen zabalera moldatzea, irudiak behar den tokian jartzea edo toki bakoitzerako egokiak diren irudiak edo koloreak hautatzea (kultura batetik bestera, tabuak eta sinboloak aldatu egin daitezke; batean lutoa adierazten duen koloreak poza adieraz lezake bestean etab.), elementuak lekuz aldatzea...<sup>3</sup> Garrantzitsua da ondo jabetzea produktu informatikoen kasuan produktua internazionalizatzeak esan gura duela iturburu kodea ('source code', 'codigo fuente') hizkuntzetatik

---

3. Internazionalizazio eta lokalizazio prozesuetan zer hartzen den "nazioartekotzat" eta zer "lekua-  
ren berezitasuntzat" kontu labaina da, edozelan ere. Izan ere, ustez lokalizatuak diren produktuen bitartez berez kultura jakin batekoak diren sinboloak eta metaforak inposatu izan dira. Esaterako, Windows-eko "mahaigainaren" metafora pantaila adierazteko, edo Word-eko funtzioen hainbat ikono. Adibidez, "moztu" eta "itsatsi" funtzioen ikonoak hartzen baditugu, esan genezake artaziaren irudia guretzat nahiko adierazgarria dela "moztu" ideia adierazteko, baina "itsatsi"ren ikonoa (goian pintza daukan karpeta, alboan paper zati bat duela) euskaldunoi guztiz arrotza zaigula ideia horretarako. Ikasi egin dugu irudi horien esangura, baina, berez, inkulturazio mota bat besterik ez dira. Kultura bakoitzera-  
rako metafora egokiak erabiltzeak garrantzi handia dauka produktuak merkaturatzeko, erabiltzaile gaixoak edozer ikasteko gai badira ere. Tunick-ek zenbait adibide interesgarri ematen ditu (Tunick 2003): ume janaria saltzen duen multinazional batek aldatu egin behar izan zituen janari kutxetan agertzen ziren irudiak Afrikako merkatuetan saldu ahal izateko. Izan ere, Afrikan ohitura omen da produktuen ontzietan ageri diren irudiek ontziaren barruan dagoena irudikatzea. Multinazional horren janari kutxetan umeen argazkiak azaltzen ziren, eta horrek guztiz inpresio oker eta deserosoa sortzen ei zuen bezeroengan. Tunick-en beste adibide batekin jarraituz (ibid.), Macintosh-eko paperontziaren ikonoak Britainia Handiko postontzien antz handia ei zeukan, eta, dirudienez, erabiltzaile britainiar batek baino gehiagok hasieran zakarrontzira botatzen omen zituen bidali nahi zituen mezuak.

aparte programatu behar dela; hortaz, ez du izango hitzik bere horretan, ezpada zernahitarako karaktereak. Gero, produktua lokalizatzean zernahitarako karaktere horiek kasuan kasuko hizkuntzako hitzez ordezkaturako dira.

Egin behar ez denaren adibide bat emateko, jo dezagun informatikako aplikazio bat gaztelaniatik abiatuta diseinatu dutela, eta formularioetan helbide postala emateko egitura era honetara definituta dutela:

1. eremua	+	2. eremua
-----------	---	-----------

“Tipo de vía” + “nombre de la vía”

Aplikazio horrek, dagozkion datuak sartuz gero, helbidea honela sortuko du:

*Avenida lehendakari Agirre*  
(1. eremua) + (2. eremua)

Programa hau lokalizatu nahi bagenu Britainia Handian erabiltzeko, adibidez, itzultzaileak kontuan izan beharko luke helbiderako formula hori ez dela zuzena ingeleserako. Izan ere, honelako emaitzak sortuko lituzke:

*\*Street Oxford*

Egitura agramatikal hori zuzentzeko, itzultzaileak aldatu egin beharko luke eremuen hurrenkera. Arazoa da hori ez dagoela beti itzultzailearen esku; aplikazioa diseinatzean eremuen ordena zurrun konfiguratu bada, itzultzaileak eremu bakoitzaren barruan azalduko diren datuak itzuli baino ezin izango du egin (kasuan *calle=Street*) baina sortuko duen egitura okerra izango da ezinbestean: erabiltzaileari pantailan azalduko zaiona *\*Street Oxford* izango da.

Beraz, produktuen lokalizazioa egin ahal izateko, ezinbestekoa da aurretik berori internazionalizatzea. Lokalizazioa, berez, produktua garatzeko prozesua oso-osorik bukatuta dagoenean hasten da. Egia da posible dela bi lanak, diseinua eta lokalizazioa, aldi berean egiten joatea, baina horretarako proiektuaren gestioak bikaina izan behar du eta oso-oso zehatza (Ottmann 2003). Zeresanik ez, hori oso urrun dago itzultzaile gehienek eguneroko esperientziatik.

### **Internazionalizazio okerrak dakartzan ondorioak**

Bistan dago, hortaz, txarto (edo batere ez) internazionalizatutako produktu batek hainbat buruhauste ekarriko dizkiola itzultzaileari. Oztupo handiak (batzuetan gaindiezinak) izango ditu lan egiteko, denbora eta energia kostu ikaragarria izango du langintza horrek eta, gainera, emaitza sarritan oso eskasa izango da. Ottmann-ek (Ottmann 2003) zenbakitara ekarri ditu diseinu akats horien ondorioak itzulpen-lokalizazio lanari dagokionez:

- Itzultzaileak bere lanaren %10 *jatorrizko testuan ulertzen ez dituen gauzak argitzen ematen du.*
- Itzultzaileak dituen arazoek eta egin behar dituen kontsulten %80 *terminologiaren kontraesanek edo zehaztasun faltak eragiten dituzte.*

Artikulu honetan informatika produktuen lokalizazio arazoez jardungo dugu, eta ahaleginduko gara zehazten zeintzuk diren diseinu fasean hizkuntzaren arloan egiten diren internazionalizazio oker nagusiak. Oro har, ikusiko denez, arazo hauek giza mintzairari eta hizkuntza naturalei buruzko kontzepzio *naif* batek sortuak dira. Artikuluan arazo hauen sailkapen bat proposatzen dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuko itzultzaileek zenbait aplikazioen itzulpen eta egokitzapenean bildutako adibide errealez horniturik.

Aurrera baino lehen, azpimarratu behar dugu aplikazio informatikoak itzultzaileari itemen zerrenda hutsen forman iritsi ohi zaizkiola (hala izan da beti artikulu hau sinatzen dutenen esperientzian). Bestela esanda: itzultzaileak ez ditu pantailak itzultzen; orden alfabetikoz antolatutako hitz, hitz multzo edo esaldien zerrendak itzultzen ditu (datu baseen edukiak, azken batez). Horietako bakoitza programako zein pantailatan azalduko den eta zerekin konbinaturik ikertzea (hau da, testuingurua bilatzea), itzultzaileak izerdi ugariak emanaz egin beharreko lana da, askotan ezinezkoa. Izan ere, gogoan hartu beharra dago produktuok sarri askotan erraldoiak izaten direla eta itzultzailea honelako lan multzoekin egokitu daitekeela: 13.000 etiketa edo item inguru, hitz batez edo gehiagoz osatuak (adibidez *profesor asociado, validar, sí, al, del, asignatura...*); 1.500 mezutik gora (adibidez, *El profesor ya tiene asignado un horario*), eta horrez gain hainbat eduki taula (adibidez, unibertsitatean irakasten diren titulazio guztien izenak, irakasgai guztien izenak, hilabeteen izenak, astegunen izenak), erabiltzaileentzako laguntza guztiak (programako “laguntza” botoia sakatzean agertzen diren edukiak), erabiltzaileentzako eskuliburuak...

Gehienbat, hiru akatsek sortzen dizkiote amaigabeko arazoak itzultzaileari:

1. Itzulgai diren *testuak egituratzeko era*.
2. Sorburutzat erabilitako *hizkuntzaren kalitate eskasa*.
3. *Interfazearen diseinuari* lotutako akatsak.

## 1. Itzulgai diren testuak egituratzeko era

Esandako legez, itzultzaileak itzuli behar dituen materialak datu baseetan antolatuta egoten dira. Hasteko, horrek esan gura du itzultzaileak ez duela izango bere lanerako ezinbestekoa den elementu bat: testuingurua. Baina, horretaz gain, produktua internazionalizatuta ez dagoenean, informazioaren antolamenduan egin ohi diren zenbait akats estrukturalak ezinezkoa egiten diote itzultzaileari kalitateko lana lortzea.

*1.1. Polisemia eta terminoen hedapena.* Batzuetan, erabaki arbitrarioen ondorioz, programako leku batean baino gehiagotan agertu arren, item guztiak sarrera edo erregistro bakarrean gordetzen dira datu basean, eta hortik dena delako terminoa agertu behar den aplikazio edo produktuaren gune guztietara hedatzen da. Bestela esanda, aplikazioko leku batean “banco” berba agertzen bada ‘jesarleku’ esanahiaz eta beste toki batean ‘finantza erakundea’ esanguraz, datu basean behin baino ez litzateke agertuko, eta aplikazioak hortik hartuko luke item hori agertu behar den leku guztietara eramateko. Kontuan hartu, bidenabar, itzultzaileak zerrenda bat daukala aurrean, eta ez dakiela, printzipioz, item hori

adiera bakar, bi edo zenbatekin azalduko den aplikazioan zehar. Halako mila adibide eman daitezke. Arrunt baino arruntagoa den bat emateko, pentsa gaztelaniazko “curso” terminoak euskaraz gutxienez ‘ikasturte/ikastaro/maila’ esangurak izan ditzakeela, eta hori unibertsitate esparruan bakarrik.

Hizkuntz kontzientzia gutxienezkoa daukan pertsona berehala jabetuko da horrek dakarren arazoaz: sorburutzat hautatu den hizkuntzan adiera bi forma bakarraz adierazi arren, hori ez da zertan gertatu xede hizkuntzan. Ondorioz, itzultzaileak banan-banan ikusi beharko du pantaila guztietan nora hedatu den terminoa, begiratu beharko du kasu bakoitzean berak emandako itzulpena zuzena den, eta, ez bada, postedizioko “adabakiekin” konpontzen saiatu beharko da, programaren diseinatzaileei abisua emanda beti ere. Aplikazioa txikia denean agian posible izango du hori egitea, baina aplikazioa erraldoia bada ez du izango kontrolatzerik testu kate bakoitza nora hedatu den.

*1.2. Unibokotasun bortxatua:* “sorburu item bat: xede item bat (eta bakarra)”. Polisemiaren arazoa konpontzea nekoso eta ia ezinezkoa izan arren, badago hori baino handiagorik. Izan ere, askotan, programa horiek diseinatuta egoten dira H1eko item bakoitzari H2n item bat eta bakarra dagokiolako uste okerretik. Ondorioz, jatorrizko item batek ordain bakarra izan behar du nahitaez. Ez da kontuan hartzen jatorrizko batek ordain desberdin bi izateko posibilitatea, ez eta jatorrizko item bik ordain bera izatekoa ere. Hizkuntzen arteko korrespondentzia 1:1 delako ustea da abiapuntua, eta itzultzaileak jatorrizko item biri ordain bera emanez gero, programak automatikoki etiketa bietako bat (eta bere ordaina) ezabatuko du; era berean, programak ez du utziko jatorrizko item bati ordain bi ematen.

Jo dezagun itzultzaileari taula horietako batean *departamento* etiketa azaltzen zaiola itzultzeko<sup>4</sup>. Termino horrek bi adiera izan litzake gutxienez: bata, unibertsitatearen egituran bereizten den atala (adibidez, esaten dugunean *Departamento de Matemática Aplicada*, euskaraz ‘saila’), eta, bestea, Frantzia barruan egiten den lurralde antolaketari dagokiona (adibidez, *Departamento de los Pirineos Atlánticos*, euskaraz ‘departamentua’). Termino pantaila desberdinetan azalduko da adiera desberdinekin (unibertsitateko sailez aritzean lehenarekin eta norberaren helbidea idazteko pantailan bigarrenarekin). Baina, esan bezala, datu basean sarrera bakarra dago, eta, beraz, badirudi konponbide zail edo ezinezkoa izango duela itzultzaileak. Egia da batzuetan itzultzaileen zuhurtzia ez sinesteko moduan zorrozten dela, eta programa “engainatzeko” trikimailuak asma ditzakeela. Esaterako, termino batek (*departamento*, kasu) adiera bi baldin baditu, itzultzaileak eska diezaioke programatzaileari etiketa berri bat sortzeko, bestearen berdin-berdina, baina aurretik zuriune bat daukana (*#departamento*)<sup>5</sup>, programak desberdintzat har ditzan; etiketa berri horri, bigarren ordaina emango lioke, eta horrela datu basean etiketa bi eta ordain bi egongo lirarteke (*departamento: saila; #departamento: departamentua*). Baina hori eginda ere, nola jakingo du itzultzaileak aplikazioaren zein tokitara hedatuko den bakoitza?

---

4. Esan bezala, adibide guztiak errealak dira.

5. Argitasunaren mesedetan, # ikurra erabili dugu zuriunea adierazteko.

Polisemiaren antzeko gauza bat gertatzen da anbigutasun sintaktikoa dagoen kasuetan, hots, forma batek berak funtzio sintaktiko bat baino gehiago bete ditzakeenean. Gaztelaniaz “informe” hitza izena izan daiteke, baina baita aditza ere (gainera, bi adizkiren sinkretismoa gertatzen da forma bakarrean: subjuntiboko orainaldiko 3. pertsona singularrekoarena eta aginte erako bigarren pertsona singularrekoarena). Gaztelaniazko bakarrak euskaraz hiru ordain beharko lituzke: “txostena”, “adieraz ezazu”, “adieraz dezala”.

Hizkuntzen tipologia desberdinek ere agerian jartzen dute unibokotasun eska-kizun horren absurdoa. Gaztelaniaz, dakigunez, erlazio sintaktikoak sintagmen posizioak eta preposizioen erabilerak adierazten ditu; euskara, aldiz, deklinazio markez baliatzen da horretarako. Horrek esan nahi du gaztelaniaz izenaren forma ez dela aldatzen funtzio sintaktikoa gorabehera: El *curso* dura dos horas / He terminado el *curso* / No puedo con el *curso* / Le ha dado un nuevo giro al *curso*. Euskaraz, jakina denez, izenak amaiera desberdinak hartzen ditu kasuaren arabera: *ikastaroak/ikastaroa/ikastaroarekin/ikastaroari*... Hortaz, aplikazio informatiko bat gaztelania bezalako hizkuntza baten tipologiaren arabera diseinatu bada, eta jatorrizko hizkuntzako item bakoitzari ordain bakarra emateko eska-kizunarekin gainera, itzultzaileak itzulgaien zerrendan *febrero* ikusten duenean, *otsaila* itzuliko du, baina horren ondorioz gaztelaniaz honelako formula bat azaltzen denean:

Desde [nombre del mes1] hasta [nombre del mes2]

esaldi hori datu baseko itemekin betetzean ondo geratuko da pantailan:

Desde *febrero* hasta *marzo*

Baina euskaraz, berriz, formula hau:

[1. hilabetearen izena](e)tik [2. hilabetearen izena](e)ra

datu baseko itemekin betetzean honela geratuko da:

\**Otsaila*(e)tik *martxoa*(e)ra.<sup>6</sup>

Konponbidea ez litzateke datu basean “febrero: *otsail*” itzultzea, hori eginez gero, honakoak sortuko liratekeelako:

Convocatoria: *febrero*

Deialdia: \**otsail*

---

6. Jakina, testu finkoan agertzen diren parentesi arteko “e” horiek hitzaren erroa kontsonantez ala bokalez amaitzearen araberako aldakiak konpontzeko jarri ditu itzultzaileak, konponbide itsusia itsusirik badago munduan, baina eskura geratzen zitzaion aukera bakarra. Dena dela, hilabeteen zerrendak itzultzean –a mugatzailearekin itzuli baditu (urtarrila, otsaila...) alferrik izango da eta forma akastunak sortuko dira edozelan ere. Ideala hau litzateke: informatikariek euskarazko sortzaile morfologiko bat erabiltzea, hiztegiko itemen erroei deklinabide markak modu automatikoan erantsiko lizkiekeena, behar diren arau morfofonologikoak aplikaturik, loturazko bokalea sartzeko edo ez sartzeko, dagokionaren arabera. Hori ez da inongo ametsa: XUXENek erabiltzen du tresna hori halako akatsak antzemateko.

Hizkuntza jakin baten tipologiari lotutako diseinuaren arazoekin jarraituz, antzeko gauza bat gertatzen zaigu ezaugarri morfologiko konkretu batzuk “nazioartekotzat” jotzen direnean. Gaztelaniaz izenaren morfologiak genero eta numero markak badauzka ere, euskaraz izenak ez dauka genero moziorik (eta numeroaren marka aglutinatu egiten da kasu markarekin). Beraz, itzultzaileak larri ikusiko du bere burua gaztelaniaz etiketa hauek itzuli behar dituenean:

Académicos

Académicas

Izan ere, euskaraz ordain bakarra genuke (*akademikoak*, adibidez), eta programak unibokotasuna ezartzen duenez (hau da, ez duenez onartzen jatorrizko item batek itzulpen bi izatea edo alderantziz), guk etiketa bi horiek berdin itzuliz gero, programak automatikoki ezabatuko luke etiketetako bat eta haren itzulpena. Ondorioz, bi horietatik “salbatutako” etiketa beste etiketa batzuekin konbinatu behar denean pantailetan, gaztelaniaz komunztadura akatsak sortuko lirateke (adibidez: méritos académicos; \*instituciones académicos).

Programaren zurruntasun horrek benetako piruetak egitera behartzen du itzultzailea. Izan ere, hizkuntza bakar baten ikuspegitik hartutako erabaki arbitrarioek (arbitrarioak zentzu teknikoan, hau da, komenentziaren arabera hartutakoak) estutasun eta denbora galtze franko ekar diezazkiokete. Gure adibideetara itzuliz, itzultzaileak aurki dezake diseinatzaileek lexiko bereizketa arbitrario bat egin dutela kontzeptu bi bereizteko. Gure kasuan, irakasgai bat etxetik ikastekoa den ala ikasgelan ikasi beharrekoa den adierazteko, *tipo* berba aukeratu dute (*tipo*: presencial/no presencial); irakasgaia nahitaezkoa, hautazkoa etab. den adierazteko, berriz, *clase* hitza hautatu dute (*clase*: obligatoria/optativa...). Beraz, itzultzaileak honako sarrera hauek aurkituko ditu bere itzulgaien zerrendan:

*Tipo*

*Clase*

Lehenengo begiratuan, eta beste ezer jakin barik, batek esango luke bi horien itzulpen arruntena *mota* dela. Orain, programaren egituraketaren ondorioz ez da posible bi etiketok itzulpen bera izatea. Itzultzaileak ikertzaile lupa hartu, eta termino horietako bakoitzaren azpian zein ideia ezkututzen den arakatu beharko du, eta ez hori bakarrik, baita etiketa bakoitzak zein “erantzun” posible izan litzakeen ere. Horren ostean, erabaki arbitrarioen bat hartu beharko du berak ere bi etiketa horiek bereizteko, eta ondo apuntatu beharko du bere itzultzaile koaderno sekretuan zelan deitu dion (eta zergatik) gauza bakoitzari. Izan ere, etiketa horietarako hartzen dituen erabakiek ondorio katea izango dute termino horiek dauzkaten beste etiketa guztietan.

## 2. Hizkuntzaren kalitatea

Softwarearen lokalizaziorako funtsezkoa da jatorrizko testuetako hizkuntzaren kalitatea zaindua izatea. Argi geratu behar da, edozelan ere, kalitate terminoarekin hemen ez dugula adierazi nahi ez estilo dotoreziarik ez filigrana linguistikorik; esan nahi dugu jatorrizko testua idaztean baztertu egin behar direla itzultzaileari denbora galaraziko dioten zehazgabetasun, errore, ulertezintasun edo inkoherentziak



(=batasun eza). Izan ere, horiek amaigabeko kontsultak eta ikerketak egin beharra dakarte, eta askotan etiketa bakar bat itzultzeak ordu (eta egun) askotako beharra eskatuko du. Hona hemen kontrolatu gabeko hizkuntza erabiltzearen arazo nagusien azalpena:

## 2.1. Hizkuntza ulertezina

### 1. *Castigar si destino es abandonable incorrecto*

Benetan zaila izan behar da holako zerbait idaztea. Honek inbidia gorritan jarriko luke André Breton bera ere!

### 2. *COFROS*

Hamaika hiztegi eta glosario alferrik kontsultatu ondoren, eta itzultzailea hasita zegoenean bere kinielak egiten ea zer izango ote zen: “Confederación Orgánica de Facilitadores, Responsables y Observadores Sociópatas”, “Compañía Ominosa de Fraudes, Robos, Ofensas y Similares” edo auskalo zer, argia egin zen: hitza oker idatzita zegoen. Benetako etiketa *Cobros* zen, “b”-rekin eta letra xeheez!

### 3. *Informe el dpto con el que desea conectar*

Sailari jakinarazi behar diot berarekin konektatuko naizela? Baina, orduan, *al departamento* izango litzateke, ezta? ¿Tengo que “informar el departamento”? (¿Es un departamento informe?) Zer da “informar”? Zer da “conectar”?

### 4. *El idioma inglés ha sido registrado en el sistema. No olvide actualizar las descripciones de los idiomas ya existentes en el sistema para el nuevo idioma.*

Zer dira “las descripciones de los idiomas”? Deskribatu egin behar al dira hizkuntzak? Adibidez: “Euskara: Euskal Herriko hizkuntza. Bokalen sistema bost elementukoa da; kontsonanteei dagokienez...”. Jakina, ez da hori mezuak adierazi nahi duena, ezpada beste hizkuntza bat erregistratuz gero sisteman, hizkuntzak zehazten diren tokian adierazi egin beharko dela zein den hizkuntza hori. Baina itzultzaileak ikerketa lan handia egin beharko du benetako esanahi hori jakin eta itzulpen egokia egiteko.

## 2.2. Koherentzia falta terminologian

Terminologia bateratua erabili ezean, hau da, jatorrizko hizkuntzan kontzeptu bererako termino bera erabiltzen ez bada beti, nahasteak eta txarto ulertuak sor daitezke, itzultzaileak (edo erabiltzaileak) ez baitu jakingo terminoak gauza desberdinak adierazteko erabili diren, edo, beste barik, diseinua egitean taldeko programatzaile bakoitzak bere terminologia erabili duen. Itzultzaileak uste badu termino ugaritasun horrek arrazoiren bat daukala, guztiz itzulpen bortxatu eta arraroak ematen hasi liteke bereizketa hori ispilatzeke, horretarako premiarik ez dagoela. Sinonimia arbitrarioaren arazoa izango genuke hemen, hots, gauza bati modu batera baino gehiagotara deitzea, beharrik izan gabe:

*Año / Curso académico*

*Clase asignatura / Clase de la asignatura / Clase de asignatura*

*Grabar/Validar/Guardar*

*Aviso/Nota/Mensaje*

Gauza bera gertatzen da polisemia arbitrarioa erabiltzen denean, hau da, kontrolatu gabeko terminologiaren ondorioa besterik ez den polisemia. Esate baterako, programa baten diseinuan *Forma de acceso* delako etiketa esangura desberdinekin erabili zen programako gune desberdinetan:

- Erabiltzailea aplikaziora zein baimen motarekin sartu den adierazteko (izan ere, baimen motaren arabera gauza batzuk ikusi ahal izango ditu eta beste batzuk ez).
- Ikaslea unibertsitatara sartzeko bidea adierazteko (hautaprobak eginda, 25 urtetik gorakoan azterketa gaindituta...).

Jakina, gaztelaniaz testu bera agertuko da esangura bata zein bestea izan, baina itzultzaileak *forma de acceso* delakoa *erabiltzaile mota* itzuli badu hori adiera bakarra zelakoan, itzulpen horrek ez du balioko etiketa beste adierarekin azaltzen den pantailetarako. Gainera, etiketa berdina guztiak datu baseko sarrera bakarrean daudenez bilduta, itzultzaileak, desastreaz konturatzen denerako, ezin izango du jakin non agertu den terminoa esangura bakoitzarekin, eta ezin izango ditu egin behar diren egokitzapenak, zoratuko ez bada behintzat.

Terminologia lana, bada, oso garrantzitsua izango da eta arlo honi dagokionez, Angelika Ottmann-i jarraiki (Ottmann 2003), honakoak izan beharko lirateke kontuan:

- a. Proiektua hasi aurretik terminologia zehaztu eta finkatu behar da jatorrizko hizkuntzan. Gauza bera egin beharko da laburdurekin ere, laburdura ez bateratuak erabiltzeak itzultzailearen lanean ez ezik, aplikazioa erabiltzean ere oztopoak ekar baititzake. Lan hori hizkuntza arduradunek (terminologo edo idazle teknikoek) egingo dute. Bigarren pausoa kontzeptu bakoitzak xede hizkuntzan izango duen terminoa zehaztea izango da, hori ere programa diseinatzen hasi baino lehenago. Xede hizkuntzako terminologo edo itzultzaileek egingo dute hori. (Hizkuntz arduradunen talde berak egin litzake lan biak).
- b. Etengabe kontrolatu beharko da terminologia, programaren diseinuaren fase eta gune guztietan (hau da, denboran zehar eta diseinu taldeko kide guztien lanean) erabilera zuzena dela egiaztatzeko (hots, hasieran finkatutako terminologiari eutsi egiten zaiola bermatzeko).
- c. Akats ortografikoak saihesteko eta terminoen aldaki ortografikorik ez erabiltzeko, finkatutako terminologia hori datu base informatiko kontrolatu eta mugatu batean sartuko da, programatzaile guztiek hortik har ditzaten termino guztiak modu automatikoan (erabili behar dituzten bakoitzean idatzi behar izan gabe). Bestela, honakoak gerta daitezke:

- d. Datu base terminologikoa ahalik eta gutxien aldatu beharko da, mota honetako proiektuak oso handiak izaten direlako eta oso lan gaitza izaten delako —eta, hortaz, garestia— aldaketa guztiak eta euren eragina erabat kontrolatzea. Gerta liteke, dena dela, proiektuan zehar zerbait aldatu behar izatea, terminoren bat ahaztuta utzi delako, oharkabean besteren bat txarto definitu delako etab. Halakorik gertatuz gero, aldaketa modu zentralizatu eta kontrolatuan egin beharko da jatorrizko hizkuntzan, eta horren berri eman beharko zaie berehalaxe itzultzaileei. Ikus dezagun, adibide erreal batez, hala ez jokatzeak dakartzan arazoak:

Proiektuaren fase batean *Datos del alumno* delako etiketa bat definitu bada, itzultzaileak, ziurrenik, *Ikaslearen datuak* itzuli izango du. Gero, hurrengo fase batean diseinatzaileek etiketa horren orde *Datos personales* erabiltzea erabaki badute, baina itzultzaileari aldaketaren berri eman barik, horrek hainbat arazo sortuko dizkio:

1. Ez du jakingo bi etiketok gauza bera adierazten duten.
2. *Datos personales* terminoa *Datos del alumno* delakoaren hiperonimoa da, eta, beraz, zabalagoa (“datos del alumno” azpimultzo bat izango litzateke “datos personales” terminoaren barruan); beraz, itzultzaileak emandako itzulpena okerra izango da baldin eta *Datos personales* etiketa irakasleei buruzko pantaila batean agertzen bada, adibidez.
3. Nola kontrolatu aldaketa horrek izango duen eragina? Ez da ahaztu behar mota honetako aplikazioetan etiketa baten eragina itzela dela: etiketa aplikazioaren leihoan agertuko da, baina baita horri lotutako mezu guztietan ere, laguntzarako pantailetan, oharretan, erabiltzaileentzako eskuliburuan... Gogoratu etiketak izen zerrenda moduko bat direla, eta hortik xurgatzen dituela programak gero pantailetan agertuko diren mezu eta testu guztiak osatzeko.

### *2.3. Koherentzia falta fraseologian*

Fraseologiaren koherentziaren arazoa terminologiaren arloan azaldutakoaren antzekoa da. Adierazpidea argia eta erraz ulertzeko modukoa izan behar da (jatorrizko hizkuntzako erabiltzaileei begira ere bai, jakina!). Kontzeptu eta ideia berak beti era berean adierazi behar dira mezu eta esapideetan: programa diseinatzen hasi aurretik aplikazioan erabiliko den hizkuntza kontrolatua zehaztu behar da, ez da erabili behar programatzaile edo proiektuan parte hartu duen bakoitzaren nahierako hizkuntza (Bernaola et al. 2003). Bestela, honelako aldaki nahasgarriak aurkituko dituzte bai itzultzaileak eta bai jatorrizko hizkuntzako erabiltzaileak:

1. *Debe introducir la fecha de nacimiento / Debes introducir alguna materia / Es obligatorio entrar el código de población*
2. *Fecha anterior / fecha inferior; fecha superior / fecha posterior*
3. *Cuenta bancaria incorrecta / Cuenta bancaria erronea*

Jatorrizko hizkuntza kontrolatua erabiliz gero, itzulpen memoria (TM) lagungarri

gerta dakioke itzultzaileari (beti ere, testuinguru barik itzultzeak dauzkan arrisku guztiekin), baina halako aldaki arbitrarioak erabiltzen badira, ordea, TMak ez dio ezertarako balio izango itzultzaileari.

#### *2.4. Adierazpen eliptikoak*

Aplikazio informatikoen interfazean askotan esaldi osoak hitz bakarreko elipsien bidez adierazten dira. Itzultzaileak aurrean zerrenda bat besterik ez duela gogoratuz gero, erraz jabetuko gara horrek sor ditzakeen anbiguitasun eta polise-miaz. Adibide batez ikusteko, jo dezagun aplikazioaren leku batean *Preinscripción* (S/N) etiketa erabili dela honako galdera hau laburtzeko: “¿Ha realizado el alumno la preinscripción? Sí/No”. Itzultzaileak, hori jakinda, ordain hauek eman ditu:

<i>Preinscripción</i>	<i>Izena emanda</i>
(S/N)	(B/E)

Arazoa da aplikazioaren beste toki batean *Preinscripción* etiketa bera beste adiera batekin erabiltzen dela: ikono batekin batera agertzen da, eta, oraingoan, adierazten digu ikur horren bidez beste pantaila batera joango garela, hain zuen ere norbere datuak sartzeko pantailara. Beraz, *Preinscripción* etiketa, bigarren kasu honetan “Ir a la pantalla de preinscripción” delakoaren elipsia da. Horrela, bada, ez dirudi *Izena emanda* itzulpena egokia denik; egokiagoa izango litzateke *Izena emateko orrira* edo antzeko zerbit.

Itzultzaileak, bada, ondo jakin beharko du etiketa hori nola erabiliko den eta kasuan-kasuan zein itzulpen dagokion. Lehen esan bezala, aplikazioa hain handia izanik, lan nekeza da etiketa baten hedapena kontrolatzea, ia lan ezinezkoa. Edozelan ere, programak ez dio utziko etiketa bati ordain bat baino gehiago erabiltzen...

#### *2.5. Etiketa edo hitz kate zentzurik gabeak*

Esandako legez, programa egituratuta dagoen moduan egoteagatik, itzultzaileak testuingururik gabeko item zerrendak itzuli beharko ditu. Ez dakiena, ordea, hau da: askotan item horietako batzuk unitate handiagoak osatzeko konbinatzen dituela programak (adibidez, *fecha de inicio* etiketa y etiketa eta *fecha de finalización* etiketa konbinaturik, *fecha de inicio* y *fecha de finalización* unitatea sor lezake). Horretaz, pantailaz pantaila nabigatzean konturatuko da, eta, bere izu eta etsipenerako, buruko biloak latzaraziko dizkion beste zerbaitetaz ere ohartuko da: sarritan, etiketak ez direla konbinatzen unitate “autonomoak” osatzeko, baizik eta beste zerbaiten menpekoak diren unitateak eratzeko, esaldi bateko zatiak edo. Adibide batek hobeto erakutsiko du:

Itzultzaileari honako etiketa hauek azaldu zaizkio bere zerrendan itzultzeko (beste etiketa askoren artean nahastuta eta ez hurrenkera honetan, ordena alfabetikoz baino), eta eskumako zutabearen ageri diren ordainak eman dizkie, horietako batzuk zentzugabeak iruditu bazaizkio ere:

- |   |                                 |
|---|---------------------------------|
| 1. <i>El alumno</i>                         | <i>ikaslea</i>                  |
| 2. <i>que cursa actualmente</i>             | <i>gaur egun ikasten</i>        |
| 3. <i>estudios en el centro</i>             | <i>ikasketak ikastetxean</i>    |
| 4. <i>ha solicitado</i>                     | <i>eskaria egin du</i>          |
| 5. <i>ingreso en la UPV</i>                 | <i>EHUn sartzea</i>             |
| 6. <i>para las siguientes Titulaciones:</i> | <i>ondoko titulazioetarako:</i> |

Jakina, unitate horiek hurrenkera horretan konbinaturik, gaztelaniaz honako esaldi bikain hau sortzen da<sup>7</sup>, eta halaxe agertzen da aplikazioko pantaila batean:

*El alumno que cursa actualmente estudios en el centro ha solicitado ingreso en la UPV para las siguientes Titulaciones:*

Prozedura horrek giza hizkuntzaren errekurtsibitatearen intuizio zakar bat ispiatzen du, hots, item kopuru mugatu bat konbinatuz esaldi infinituak sortzeko gaitasuna, baina, gutxiena esateko, guztiz *naifa* da suposatzea konbinazioa modu paraleloan (ordena berean eta erregela morfosintaktiko berberak aplikatuz) gertatu behar dela hizkuntza batetik bestera. Izan ere, ikusi zein den emaitza euskaraz:

*\*Ikaslea gaur egun ikasten ikasketak ikastetxean eskaria egin du EHUn sartzea ondoko titulazioetarako:*

Argi ikusten denez, ezinezkoa da itzulpena horrela egitea, lortutako emaitza zentzugabekoa baita. Oraingo honetan ere, konponbide bakarra aplikazioaren diseinua aldatzea izango da, programatzaileek eta itzultzaileek elkarlanean arazo honi beste konponbideren bat aurkitzeko.

## 2.6. Aldagaiak erabiltzea

Itemen konbinazioaren haritik jarraiki, maiz, batez ere mezu eta oharretan, programak diseinatzean aldagaiak erabiltzen dira (%1% motako eremuak), hots, balio desberdinez bete beharreko sinboloak. Eremu horiek sistemak berak beteko ditu datuekin, kasu bakoitzean osatu behar den mezuaren edo oharren arabera:

1. *El profesor %1% ya tiene asignada una clase para el %2% de %3%*
2. *No existe la vía de acceso %1% %2%*

Mota honetako egiturek bi arazo nagusi eragiten dituzte:

- a. Ez da erraza mezuaren esanahia ulertzea, ez baitago ziur jakiterik zer ordezkatzen duen aldagai bakoitzak. Itzultzaileak, beraz, zailtasun handia izango du itzulpen zuzena emateko.
- b. Euskara hizkuntza deklinatua dugu, eta, hortaz, askotan ezinezkoa da mota horretako mezuak zuzen itzultzea: ez dakigu zer adieraziko duten eremu aldakor horiek, eta hitzak berak adierazten duen legez, ziurrenik, kasuan-kasuan aldatu egingo da edukia. Beraz, zelan jakin zein deklinazio marka jarri?

7. Beste konbinazio batzuk eginik, beste aukera batzuk sor litezke: "El alumno ha solicitado ingreso en la UPV", "El alumnos ha solicitado estudios en el centro" etab.

Har dezagun, esaterako, goiko lehen adibidea. Esaldia modu batera baino gehiagotara osa daiteke. Hona hemen bat:

1. *El profesor Pedro Etxebarria ya tiene asignada una clase para el cuatro de marzo*

Itzultzaileak, ziurrenik, %3% eremu horretako edukiak honela izango ditu itzulita: *urtarrila, otsaila, martxoa, apirila...*

Eta esaldia, goiko adibidearen haritik interpretatu badu, honela itzuliko du aldagaiekin (aldagaien ordena aldatuta, data euskaraz egoki emateko):

*%1% irakasleak badu eskola ordu bat zehaztuta %3%ren %2%(e)rako*

Beraz, esaldi osoa honela osatuko da modu automatikoan:

*Pedro Etxebarria irakasleak badu eskola ordua zehaztuta martxoaren 4(e)rako*

Baina, zer gertatzen da itzultzailea oker ibili bada bere suposamenduetan, eta aldagaien edukiak guztiz bestelakoak badira, adibidez, honelako esaldiak sortzeko modukoak?:

2. *El profesor ayudante ya tiene asignada una clase para el grupo-prácticas de Francés*

Kasu horretan, itzultzaileak aurretik zehaztu duen egiturak honelako esaldi okerrak sortuko lituzke:

*\*Laguntzaile irakasleak badu eskola ordua zehaztuta Frantsesaren praktika-talde(e)rako*

### 3. Interfazearen diseinuari lotutako arazoak

Behin baino gehiagotan adierazi dugun legez, itzultzaileak, bere lana ondo egin ahal izateko, argi izan behar du testu kate bakoitza edo elementu bakoitza aplikazioko zein pantailatan agertuko den, alde batetik zehatz jakiteko zein den item bakoitzaren esangura (ikusituguru aurreko ataletan testuinguru barik itzuli beharrak dakartzan ondorioak) eta, bestetik, interfazean egin behar dituen aldaketa formalak identifikatzeko. Aukera izan beharko luke, hortaz, ikusteko leihoak, goitik beherako menuak, testu kutxak, irudi animatuak, ikonoak, era guztietako mezuak etab. Izan ere, askotan, itzulpenaren luzeraren arabera, handitu edo txikiagotu egin beharko ditu tartea edo egokitu letra motak eta bestelako ezaugarri tipografikoak, elementuak lekuz aldatu eta beste hainbat egokitzapen egin, beti ere xede hizkuntza eta kulturari ondoen datorkionaren arabera.

#### 3.1. Espazioaren arazoa

Internazionalizatu gabeko aplikazioen kasuan, lehen esan bezala, erreferentziatutako hizkuntza baino ez da izaten gogoan prozesu guztian eta, beraz, erabiltzailearentzako interfazea prestatzean ere gauza bera gertatutako da. Horrela, bada, pantailatako espazioa banatzerakoan, erreferentziatutako hizkuntza horren premiak izango dira kontuan, inolaz ere erreparatu gabe beste hizkuntzetan horrek izango duen eraginari. Horrek ekarriko du itzultzaileak

batzuetan leku sobera izatea (gaitz erdi), baina beste batzuetan, aldiz, tarte txikiegia izatea ordain egokia emateko. Era berean, itxura xebleko testu kutzak ere sor ditzake, non alde batetik izugarrizko tarte hutsa geratzen den, eta, bestetik, berriz, testua kutxatik kanpo atera edo moztuta geratzen den.

### 3.2. Laburdurak

Lekua banatzeko arazoak direla eta, batzuetan laburdurak erabiltzen dira jatorrizko hizkuntzan: askotan leku txikian informazio handia eman behar izaten denez, badirudi laburdurak horretarako aproposak izan daitezkeela. Dena dela, hizkuntza bakoitzak bere ohiturak ditu laburdurak sortu eta erabiltzeko, eta programa hizkuntza jakin baten egitura eta ohiturei atxikita diseinatuta badago —gure kasuan gaztelaniaren arabera—, hori buruhauste galanta izango da euskarara itzuli behar duenarentzat, batez ere kontuan hartuta euskara hizkuntza atzizkidun eta deklinatua dela, eta, hortaz, berbaren amaieran informazio asko (semantiko nahiz gramatikala) gordetzen dela. Ikus gaztelaniazko laburdura hauek:

<i>Profesor</i>	<i>Prof.</i>
<i>Asignaturas</i>	<i>Asig.</i>
<i>Docencia</i>	<i>Docenc.</i>

Gaztelaniaz halako laburdurak erabil litezke testu kate horiek tarte txikietan sartzeko, eta erraza da, oso, modu laburrean informazio argia ematea, batez ere erabiltzailearentzat arloa ezaguna bada. Baina euskaraz honako testu kateak baditugu: *Irakaslea, Irakasgaiak, Irakaslana...* nola laburtu behar ditugu, bada, modu ulergarrian?

Horrez gain, badira beste arazo batzuk laburdurek eragindakoak. Izan ere, gaztelaniaz testu katea luzea izateak ez du esan nahi euskaraz ere horrela izan behar denik, eta, beraz, ez du esan gura gaztelaniaz laburdura erabili behar izanagatik euskaraz ere hala behar duenik:

<i>Departamento</i>	<i>Dpto.</i>
---------------------	--------------

Gaztelaniaz alde nabarmena dago laburduraren eta forma osoaren artean lekuari dagokionez, baina euskaraz, zer egin behar du itzultzaileak? Modu ez laburtuan *Saila* jarri eta laburtuan, *Sail*? Ez dirudi oso zentzuzkoa denik, forma ez laburtuak zein laburtuak karaktere kopuru bera dute eta. Orduan, *Sa*. ipini behar du? edo, agian, *Sai*.?

Horrelako egoera baten aurrean taxuzkoena izango litzateke euskaraz laburdurarik ez erabiltzea, ulergarri egitekotan bederen, nolnahi ere ez baita karaktererik aurrezten. Alabaina, hori ere ez da posible izango lehen azaldutakoaren arabera (etiketa bat, ordain bat). Beraz, badirudi, itzultzaileak bere sen ona albo batera utzi eta jatorrizkoaren morroi izaten jarraitu beharko duela oraingoan ere.

### 3.3. Forma laburtu arbitrarioak

Nahiz eta batzuetan laburdurak bide egokia izan lekua edo karaktere kopurua murrizteko, beste batzuetan, laburtzeko grina dela eta, jatorrizkoan forma

laburtuak erabiltzen dira inongo zentzurik ez erregularitasunik ez dutela (batzuetan tekleatze lan azkarraren emaitza baino ez dirudite). Ikus adibideok:

*F. ren. usu.*  
*S. Profesor*

Baina zer esan nahi dute? Horrelakoetan oso zaila da benetako testu katea zein den jakitea eta, ondorioz, itzultzaileak ez du jakingo zeren ordaina eman behar duen. Dena dela, horrelakoetan itzultzaileak ez ezik, jatorrizko hizkuntzako erabiltzaileak ere nekez ulertuko du eta horrek arazoak eragingo dizkio aplikazioa erabiltzean. Horrenbestez, diseinatzaileak gogoan hartu beharko luke ea asko irabazi duen testu guztia espazio txiki horretan sartzea lorturik, baldin eta horren prezioa erabiltzailea guztiz nahasturik geratzea bada, eta ea ez litzatekeen ego-kiagoa izango programaren diseinua erabiltzaileen premietara moldatzea, eta ez alderantziz.

### Ondorioak

Artikulu honetan saiatu gara erakusten norainoko arazo larria den itzultzailearentzat internazionalizatu gabeko produktu baten lokalizazioa egin behar izatea, eta zelan, ahaleginak ahalegin, emaitza beti izango den oso eskasa besterik ezinean, kostu ikaragarria izateaz gainera denboran, esfortzuan eta itzultzaileen moralean. Izan ere, izenburuak umore ozpin xamarrez zioen bezala, inarra txarra bada, ez dago modurik bazterrak txukun uzteko.

- *Lehendabiziko ondorioa*, beraz, begi bistakoa da: *inarra onak egin behar dira*. Globalizazioaren sasoi honetan, eta, batez ere, gurea bezalako gizarte elebidunean, guztiz onartezina da produktu informatikoak diseinatzeko dituzten enpresak internazionalizazio eta lokalizazioaren eskakizunetatik at bizitzea. Are onartezinagoa produktu elebidunak edo eleanitzekoak sortzen dituztela ozen aldarrikatzen dutenean, sarritan gertatzen den legez. Itzultzaileak torturatzeko sortua dirudien produktu bat diseinatu berri duen enpresa ezagun batek “multidioma” deitzen dio lau haizeetara bere aplikazio lastimagarriro hormatuari. Esperientziak erakutsi digu (eta edonork ikus dezake, sarean apur bat nabigatuz gero) Euskal Herrian arlo honi buruzko ezjakintasun itzela dagoela informatika enpresa gehienetan.

Hirutik bitan, hizkuntza naturalaren kontzepzio atomista oker batetik abiatzen dira, zeinaren arabera hizkuntza item isolatuen zerrenda bat den, testuinguruak ez daukan inongo lekurik, eta giza hizkuntza guztiak paraleloak diren egituraz eta lexikoz, hori bai, guztien erdigunea den (eta kasualitatez programatzailearena den) hizkuntza jakin bat erreferentzia harturik. Arestian esan bezala, alde batetik, ezinbestekoa da produktuen oinarriko konfigurazioa inongo hizkuntzaren egituraren menpe ez egotea. Bestetik, eta aplikazioan erabiliko den hizkuntzari dagokionez, ezin utzizko beste eskakizun bat da diseinatzaileek hizkuntza kontrolatua erabiltzea. Berriz ere azpimarratu behar dugu, edozelan ere, horrek ez daukala zerikusirik “zientzietakoek oso txarto idazten dute, hobe klasikoak irakurriko balituzte” erako topiko ergelekin. Hizkuntza kontrolatua esatean hauxe adierazi gura dugu: hizkuntza naturalaren barruko azpimultzo bat, murriztapen jakin batzuk ezarri



zaizkiona sintaxian eta lexikoan, anbiguotasunak, inkoherentziak, lausotasunak eta aldaki arbitrarioak baztertzeko. Termino eta adierazpide ondo zehaztuen multzo horretan aldaketarik egin behar izanez gero, zorrotz kontrolatu beharko lirateke aldaketok, eta haien berri eman segituan itzultzaileei, eurek ere aldaketa horien eragina kontrola dezaten euren bertsioan.

- *Bigarren ondorioa* inarra erosten duenari dagokio, batez ere inarra guztion diruaz erosten duenari: merkatura joan aurretik, *eroslea ondo jantzi behar da inarra kontutan*. Izan ere, arloko espezialista askok internazionalizazio eta lokalizazioaren berririk ez badute, zer esango ote dugu Euskal Herriko erakunde publikoetako agintariez. Tamalgarria da, baina informatika produktuak sortzeko antolatzen diren lehiaketa publikoetan oso gutxitan (edo egundo ez!) eskatzen zaie lehiatzaileei internazionalizazioan eta lokalizazioan esperientzia edo prestakuntza izatea. Normalean produktu guztiz elebakarra erosten da (gehienez ere datu base bat, item bakoitzaren alboan laukitxo huts bat daukana, hor itzulpena jartzeko) eta gero produktu hilgarri hori itzultzaileen eskuetan uzten da, kontzientzia lasai asko izanik, gainera. Horrela, itzultzaileak amaigabeko gurutzebideari ekiten dio, energia, indarrak eta denbora zakuka xahutuz, eta egiten duena egiten duela, azkeneko emaitza txarra izango dela jakiteak ematen duen etsipenaz. Baina, herritar gisa, ordua dugu galdetzeko ea zilegi ote den guztion dirua produktu txarretan horrela botatzea. Ezinbestekoa da erakundeek, batez ere erakunde publikoek, internazionalizazio eta lokalizazio kontzeptuen berri izatea eta arazoaz jabetzea, arlo honetan politika orokor bat ezar dezaten, eta behar bezalako baldintzak eskatu gizarte elebidun baterako produktu elebidunak (edo eleanitzekoak) diseinatu behar dituzten enpresei.
- *Hirugarren ondorioa inarrarekin lan egin behar duenari dagokio*, itzultzaileari. Artikulu honetan barrena behin eta berriro azaleratu dugu egoera honek itzultzaileari dakarkion sufrikario gordina, eta ez gara pittin bat ere ibili gehiegikerietan. Alabaina, gure nahigabeak lehenbailehen amaitzea nahi badugu, ezin gara salaketara mugatu. Gutxienez, hiru gauza egiteko prest egon behar gara:
  - Lehenik, hezitzaile lana egiteko, internazionalizazioaren eta lokalizazioaren berri onak han-hemen zabalduz, batez ere erabakimena duten agintarien belarrietatik hurbil, eta ahal den modurik errazen eta argiengan, gainera.
  - Bigarrenik, irmo eutsi behar diogu lan duinerako gutxienerako baldintzak eskatzeari. Programa bat batera internazionalizatua ez egon arren, batzuetan ekinaren ekinez itzultzaileak lortu egin lezake diseinatzaileek moldaketa txikiren bat egitea konfigurazioari. Ez dezagun hain erraz eman amore, ez dezagun onar, adibidez, testuingururik gabe itzultzerik. Gauzak “oso-oso txarto” egonik ere, aukera egon liteke “oso txarto” egoerara pasatzeko, behar bezain astun jarritz gero. Jakina, batzuetan bataren eta bestearen arteko aldea oso txikia da, eta zenbaitetan zuhurrena planto egitea izan daiteke (ahal izanez gero), hots, uko egitea nahitanahiez guztiz txarra izango den produktu bat sortzeari.

- Hirugarrenik, zorrotzak eta exigenteak izan behar gara geure buruarekin. Batzuetan, egin beharreko ikerketak, kontsultak eta galderak ugariegi eta nekosoegiak dira, eta tentazioa izaten da batere galderarik ez egitekoa, edo, bestela esanda, artikulua honen hasierako epigrafeetan azaltzen zen itzultzaile hark legez, hilabeteen izenen zerrenda ixil-ixilik idaztekoa, “eurek molda dezaten gero”, gehiago jakin gura izan barik.

Gaur egungo itzultzailearen lanabesen mundua ezin da amaitu paper zuriaren edo *Word* prozesatzailearen ortzemugan; softwarea itzultzeko, ezin dugu jarraitu erabiltzen testu arruntetarako erabiltzen ditugun estrategia eta tresna berberak. Eta inork ez dezala esan “A, baina nik ez dut informatikako ezer itzuli behar izaten”. Nork ez du gaur egun web orririk itzuli behar? Prestatu gaitzen, bada, sasoi berriek eskatzen dizkiguten lan molde berrietarako. Beharrezkoa da, eta, sinetsi, kilikagarria ere bai.

## Bibliografia

- Aparicio, S. (2002): “Curso virtual sobre técnicas de traducción y corrección de páginas y sitios web”, SIC, SL
- Arderiu, X. (2003): “Gestión y control de calidad en la traducción”, SIC, SL. Bartzelona
- Bernaola et al. (2003): “Ordenagailuz lagundutako itzulpena eta itzulpenaren kalitatea”, *Senez* 26. <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20031210/Bermopa>
- Fernandez, L. (2002): “Lokalizazioa eta internalizazioa”. Hizkuntza Teknologia graduondoko apunte sorta. UEU. Eibar
- Henes, U. (2002): “Algo más que traducir”, *La Comunicación Técnica* 1/2002, 1, 4-6. [http://www.tecom-es.org/descargar/news\\_2002\\_1\\_sp.pdf](http://www.tecom-es.org/descargar/news_2002_1_sp.pdf)
- Ottmann, A. (2003): “Localización de software eficiente y libre de errores”, *La Comunicación Técnica* 3/2003, 1, 6-9. [http://www.tecom-es.org/descargar/News\\_2003\\_3-sp.pdf](http://www.tecom-es.org/descargar/News_2003_3-sp.pdf)
- Tunick, L. (2003): “Language, Translation, Localization, and Globalization”, *The ATA Chronicle* XXXII-3, 19-21.
- Zenbait, (2002): “La Localización”, *Tradumática* 1. <http://www.fti.uab.es/tradumatica/revista/sumari/sumari.htm>



